

Manterola, J.-J. (2020).
Le social à l'épreuve des valeurs, d'un Pays Basque à l'autre. Pessac, Presses MSHA

Xabier ITÇAINA*

CNRS, Centre Emile Durkheim, Sciences Po Bordeaux, GEZKI-ko lankide

Akitaniako Gizarte Zientzien Etxeak (Maison des Sciences de l'Homme) 2020an argitaratu zuen 2020an Jean-Jacques Manterolak idatzi *Le social à l'épreuve des valeurs. D'un Pays basque à l'autre* liburua¹. Lanaren oinarria zientzia politikoetako tesi bat da, 2016an Sciences Po Bordeaux-en aurkeztua izan zena eta ene partetik zuzentzeko edo, hobeki erran, laguntzeko plazerra izan nuena. Lan hunek jasta berezi bat hartzen du osasun krisi global huntan, ikusiz beharordu eta premia sozial berrien gorakada. Testuinguru huntan, gizarte ekonomiak arrisku sozial bereziak dituzten aldera proposatzen dituen tresnek interes berri bat sortu dute, zirkuito laburrekin pasatu dena lekuko. Testuinguru nahasi hortan *Le social à l'épreuve des valeurs* behar den tenorean agertzen da. Liburuak, ene gustuko, lau ekarpen dauzka.

Lehen ekarpena azertuak diren sektore eta lurraldeetarik datorkio. Sektoreri doakionez, lan integrazioa (*insertion par l'activité économique*) eta etxe-laguntza (*aide à domicile*) dira xeheki azertuak. Gaurko gizartearen arazo publiko (Gusfield 1984) nagusier ihardesten diote : lan merkatuaren beharorduak alde batetik, gizartearen zahartzea eta osasun arazoak bertzetik. «Arazo publiko» horiek azpi-merkatu berezi batzu sortu dituzte, nun gizarte ekonomiaren eragileak jokatzen duten Estadao eta tokiko bo-

¹ Liburua open access formatuan aurki daitaie baita ere: <https://una-editions.fr/le-social-a-lepreuve-des-valeurs-dune-pays-basque-a-lautre/>

* **Harremanetan jartzeko/Corresponding author:** Xabier Itçaina. CNRS, Centre Emile Durkheim, Sciences Po Bordeaux – x.itcaina@sciencespobordeaux.fr – <https://orcid.org/0000-0002-9593-0088>

Nola aipatu/How to cite: Itçaina, Xabier (2021). «Manterola, J.-J. (2020). *Le social à l'épreuve des valeurs, d'un Pays Basque à l'autre*. Pessac, Presses MSHA», *GIZAETOA - Revista Vasca de Economía Social*, 18, 317-320. (<https://doi.org/10.1387/gizaetoa.23100>).

Jasoa: 2021/09/23; onartua: 2021/09/27.

ISSN 1698-7446 - eISSN 2444-3107 / © 2021 UPV/EHU



Obra hau Creative Commons Atribución 4.0 Internacional-en lizentziapean dago

tere publikoen ondoan, bai eta irabazi oneko eragile pribatuen ondoan. Ikerketa hori eremana da Ipar Euskal Herrian eta Euskal Erkide Autonomikoan, Gipuzkoaren kasuan zentratuz. Egia erran, gizarte zientzietan Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko konparaketa ainitz aipatzen da bainan guti lantzen. Kasu huntan, Jean-Jacques Manterolak inkesta kualitatibo mamitsu bat ereman du mugaz bi aldetarik, ikerketa protokolo konparatibo zorrotz bat segituz. Liburuak untsa erakusten ditu alde batetik mugaren bi alderdien bilakaera desberdinak: xendra instituzional (*path dependence*) desberdinak, ongi-izaite Estadoen egituratze desberdinak, dezentralizazio politiko-administratibo desberdinak, eta halaber bi sektoreen merkaturatze prozesu desberdinak. Ber-denboran azpimarratzen du bi lurraldeek ezagutzen dituzten arazo sozial eta demografikoek elgarren egite haundia badutela. Ahatik, erakusten du baita ere ororen buru bi sektore horietan mugaz gaindiko harremanak frango murrizak direla, euskal gizarte ekonomiaren bertze sektore zonbeitetan ez bezala. Marko konparatibo horrek dio emaiten bere izaria lan huni. Ez da tokian-tokiko ikerketa xoil bat baizik eta europar ikerketa bat, nun untsa agertzen diren eskala desberdinen arteko harremanak eta jokoak, bai lurralde gobernantzari, bai gizarte ekonomiaren eragilen mobilizazioari doakionez. Marko konparatibo bikoitz horrek (bi sektore eta bi lurralde) du zinez lan hau berexten.

Liburuaren bigarren interesa bere ikerketa galderatik eta marko teorikotik dario. Euskal kasuaz aparte, Manterolak gizarte ekonomiaren europeanizazio prozesua aztertzen du irakurketa neo-instituzional baten bidez. Arauak eta baloreak ongi-izaite Estadoek nola arramoldatzen dituzten behatzen du. Oroz gainetik, arau eta balore horiek lurralde dinamika intersektorialen bidez barnatzen ditu, hau da : garapen agentziak Hegoaldean, Garapen kontseilua Iparraldean, lurralde cluster desberdinak. Lurralde gobernantzaren tresna berriek nola hartzen dituzte kondutan arriskuan diren biztanleak ? Alde hortarik, Manterolak teoria neo-instituzionalista, ekonomia politikoa bai eta konbentzioen soziologia frantsesaren artean eraikuntza teoriko berme bat eskaintzen du.

Hirugarrenik, liburuak hipotesi erabilgarri batzu garatzen ditu. Lehendabizik orroitaratzen du hemen bertze tokietan bezala, lan integrazio sistemak eta etxeko laguntzak merkatu bat osatzen dutela. Sektore bakotxa «ordenu instituzional» (Smith 2016) berezi batean oinarritzen da, mugaz bi aldetako dezentralizazio eta ongi-izaite sistemen arabera aldatzen dena. Bainan erakusten du baita ere gizarte ekonomiako eragileen ondoan, bertze eragile batzu ere lanean ari direla hain zuzen merkatuari lotuak ez diren arau eta balore batzuen garatzeko, behartsuen kezker premia emanaz. Bigarren hipotesiaren arabera, bai Ipar Euskal Herrian, bai Euskal Autonomia Erkidegoan eta Diputazioen mailan, botere publikoek behar dituzte ber denboran jendetze behartsuak integratu eta lurraldearen emaitza edo

performance ekonomikoak bultzatu. Manterolaren arabera, helburu bikoitz horren juntatzeko xedeak bi lurraldeek daukaten aspaldiko tradizio kooperatibotik datorkio. Bereziki aztertuak dira esparru instituzional berri batzu, Garapen kontseilu, agentzi eta clusterrak, nun elgarri juntatu nahi dituzten helburu sozialak eta lurralde lehiakortasuna, junta horrek sor lezazken gora-beherekin. Interes orokorraren izenean, arrisku sozialean dagoen biztanleria ez merkatu xoil bat bezala ikusteko gisan. Ikuspegi hortarik datorkio Manterolak aurkezten duen «berrikuntza sozialaren lurralde sistema»-ren konzeptua, zoinek gizartearen zati ahulenak berriz sartzen dituen lurralden dinamiken objektu eta sujetu bezala.

Azkenik, ohargarri da lan hunen egilearen ibilbidea bera aberatsa dela, hain zuzen erakusten duelakotz zozbat zubi eraiki daitezken lurralde garapena, ikerketa, ekintza soziala eta gizarte ekonomiaren artean. Luzaz Ipar Euskal Herriko barnekaldeko heziketa zentro batean lanean arizan eta, Jean-Jacques Manterolak Ipar Euskal Herriko herri elkargo berrian hartu zituen Elkartasuna zerbitzuen zuzendaritza eta herrien ekintza sozial zentroen arteko koordinaketaren ardura. Liburu akademiko huntan sendi da esperientzia praktikoa luze hori bai eta Euskal Herriaren ezagutza zehatza. Halaber susmatzen dugu liburu huntan barnatua den gogoeta izigarri erabilgarria izan den Ipar Euskal Herria bere historia sozio-instituzionalaren fase berri batean sartzekotan delarik. Aitortu behar da Iparraldean azken 30 urte hauetan garatzen ari den lurralde gobernanta eredu berriak hainbat gai barnatu dituela : bertzeak bertze, lurraldearen erakargarritasunaren ondorio on eta ilunak, ekonomiaren lehiakortasuna eta iraunkortasuna, laborantxaren bilakaera, euskera eta euskal kulturaren bilakaera, gatazka politikoa- ren ondorioak, lurra eta etxebizitzaren auzia, mugaz gairik harremanak. Bainan berrikuntza dira zinez gai sozialer (sentsu hertsian) lotu : desberdintasun sozialak, belaunaldien arteko tirabirak, gizartearen zahartzea eta «zilarrezko ekonomiaren» gorakada, prekaritate eta pobrezia forma berriak, barnekaldea eta kostaldearen arteko desoreka sozial eta demografikoak, barkartasuna, etorkinak eta iheslariak. Garapen kontseiluak, adibidez, Covid-aren ondorioetatik berriki egin zuen inkesta balios bat Ipar Euskal Herrian. Hots, ordu arte doi bat itzalean geratzen ziren gaiak gaur plaza gainean dira, eta lurralde gobernantzaren eragileak ari dira tresna berri batzuen biltzen kari horretara. Lan integrazioari doakionez, aipa ginezazke adibidez Hego Akitaniako Lurralde Kooperazio Ekonomiko Poloan (*Pôle Territorial de Coopération Economique*) bilduak diren hainbat esperientzia: enplegatzaileen elkarteak, formakuntza zentroak, aktibitate eta lan kooperatibak (CAE, *coopératives d'activité et d'emploi*), interes kolektiboko kooperatibak (SCIC, *sociétés coopératives d'intérêt collectif*). Landesetako, Biarnoko eta Euskal Herriko hainbat eragile biltzen dituen esperientzia horren xedea da lana eta heziketa profesionalaren merkatuengan eragitea gizarte ekonomia-

ren prinsipio eta tresnen bidez. Neurri haundi batean, hor eraikitzen ari da Manterolak «berrikuntza sozialaren lurralde sistema» izenda lezaken zerbeit. Orogen buru eta idekitzen dituen bideak ikusita, daukat liburu hunek elikatuko duela nehore bide bazterrean uzten ez duen lurralde garapen edo lurralde transizio baten aldeko gogoeta.

Erreferentziak

- Gusfield, J. (1984), *The culture of public problems. Drinking-driving and the symbolic order*, Chicago: University of Chicago Press.
- Smith A. (2016), *The politics of economic activity*, Oxford: Oxford University Press.